



**2010EKO MARTXOAREN 10EKO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko martxoaren hamarrean, arratsaldeko sei terdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo eta Xanet Barreras Jauregi.

Aktan adieraziko da Iñaki Saldaña Herrero zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Felix Urkola Iriarte zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2010eko otsailaren 10ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2010eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 2 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA HAMALAU MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU EURO eta HOGEITA HAMAR ZENTIMO (54.573,30)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 10-11-002 zbk.dun esped.: Etxeko laguntza zerbitzua murriztea otsailaren 1etik, egunean 6 ordutik ordu terdira, onuradunaren borondatez. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2a da.

- 10-11-003 zbk.dun esped.: Etxeko laguntza zerbitzua murriztea otsailaren 22tik, astean 8 ordutik 5 ordura, onuradunaren egoerak hobera egin duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2a da.

- 10-11-004 zbk.dun esped.: Martxotik aurrera onuradunaren ekarpena aldatzea, %61etik %24ra, bere ekonomi egoeraren aldaketagatik.



- 08-11-008 zbk.dun esped.: Etxeko laguntza zerbitzua murriztea martxoaren 8tik, egunean 3 orduetik ordu terdira, onuraduna eguneko etxera joaten hasi delako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %8a da.

#### Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 09-01-012 zbk.dun esped.: Alokairurako dirulaguntza etetea, bizileku aldaketagatik.

#### Drogomenpeketasuna garraiorako laguntza.-

- 10-14-002 zbk.dun esped.: Martxotik aurrera baja ematea Agipad-eko programa amaitu duelako.

#### IV.- SANTA MADALENA PLAZAKO URBANIZAZIO LANEN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Santa Madalena plazako urbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak eta Pedro Izaskun eta Amagoia Azurmendi arkitektoek 2 zk.dun obra egiaztagiria aurkeztu dute. Obra egiaztagiri honen zenbatekoa BERROGEITA HAMAR MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI EURO ETA HAMAR ZENTIMO (50.367,10 €)koa da. Lan hauek MIGUEL IMAZ, S.A enpresa ari da burutzen.

Obra egiaztagiri honi bere oniritzia eman dio udal arkitekto teknikoak.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2. obra egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.

#### V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

##### Gerriko Ikerlan Beka 2009.-

Aurreko Tokiko Gobernu batzarrean, Gerriko Ikerlan Bekaren 2009 ekitaldiko 2. zatiaren ordainketa egitea onartu zen. Onartutako kopurua bi mila eta bostehun eurokoa zen.

Kontabilitateko liburuetan ikusi ahal izan denez 2009 ekitaldian bi mila berrehun eta berrogeita hamar (2.250 €) bakarrik zeuden eta beraz ezinezkoa zen bi mila eta bostehun euro ordaintzea.

Honen aurrean Kultura Batzordeburuak beste proposamen bat luzatu du, Gerriko Ikerlan Bekaren 2009 ekitaldiko 2. zatiaren dirulaguntzari dagokionean, 2009ko aurrekontutik bi mila berrehun eta berrogeita hamar (2.250 €) euro eta 2010eko aurrekontutik gairontzeko berrehun eta berrogeita hamar (250 €) euro ordaintzeko.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, proposamena onartu egiten du bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin.

##### Lazkaotxiki Musika Eskola.-



Lazkaotxiki Musika Eskolarentzat 2010eko aurrekontuan aurrikusitako partidatik lau mila (4.000 €) euroko dirulaguntza ematea proposatzen da. Aurretik beste lau mila (4.000 €) euroko kopurua emanda dago.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, proposamena onartu egiten du bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin.

Une honetan Iñaki Saldaña Herrero zinegotzia bertaratu da bilkurara.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

